



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

67. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Maiatza



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Maiatza

NABARMENDU BEHARREKOA

> Batzordeak gomendioak ezarri ditu egonkortasuna, hazkundera eta enplegua bultzatzeko

Europako Batzordeak aurrekontu mailako neurrien eta erreforma ekonomikoen gomendio berriak onartu ditu finantza-egonkortasuna indartzeko, hazkundera bultzatzeko eta Europar Batasun osoan enplegua sortzeko helburuarekin.

Gomendioek eurogune osorako eta kide diren estatueterako orientazio operatiboak biltzen dituzte aurrekontu mailako politikak prestatzeko eta hurrengo hamabi hilabeteotan egin beharreko erreforma ekonomikoak landu ahal izateko. Horien guztien helburua lehiakortasuna bultzatzea eta enplegua sortzen laguntzea lirateke.

Onartutako gomendioek eurogune osorako erreferentzia orokor bat biltzen dute. Gainerakoak, berriz, herrialde bakoitzerako (edo herrialde taldeak) gomendio espezifikoek multzoetan egituratuta daude, bakoitzak bizi duen egoera zehatzaren arabera.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/europe2020/making-it-happen/country-specific-recommendations/index_en.htm



> Gipuzkoako Foru Aldundiak bi proiektu berri aurkeztu ditu Euskadiko FEDER 2007-2013 Programa Operatiboa kofinantzatzeko

Euskadiko FEDER 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea egin zuten Bilbon maiatzaren 24an. Ekimen horren helburu nagusia 2011ko gauzatze-txostena onartzea izan da eta ekitaldian, foru-aldundiez gain, honako hauetako ordezkariak hartu zuten parte: Europako Batzordea, Eusko Jurlaritzak eta Estatuko Administrazio Orokorra.

Onartutakoaren arabera, Euskadi mailan, gauzatze maila % 74koa izan da 2007-2011 aldirako aurrez ikusitako jardueretik. Era berean, beste batzuekin batera finantzatutako jardueren bidez eragindako inbertsio pribatua 650 milioi euro baino gehiagokoa izan dela kalkulatu dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasuna eta Finantza Departamentuak ordezkaturik, Jarraipen Batzordeari proposamena aurkeztu dio funtsak berriro esleitzeko eta bi proiektu berri gehitzeko. Aipatutako Batzordeak onartu du proposamena eta bi proiektu horiek Gipuzkoako Txirrindularien Bide Sarea (bidegorriak) eta Pasaiaiko Badia leheneratzea biltzen dituzte.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/informe-anual%202011-POPV-07-13.pdf

> Emakumezkoek betetzen dute Europako herrialdeetako erantzukizun politikoko lau postutatik bat

Emakumezkoek Europako bizitza publikoan, sozialean eta enpresa arlokoan duten presentziak igoera handia izan du azken urteotan eta ordezkariak politikoko postuetan ugaritu egin da emakume europarren sarrera azken hamarkadan.

Dena den, erantzukizun politikoko maila gorenetan emakumezkoen presentzia oraindik ere gizonenak baino nabarmen txikiagoa da, Europar Batasun osoan, emakumezkoek gobernu eta parlamentuetako kide kopuruaren laurdena betetzen baitute.

Gipuzkoaren kasuan, emakumezkoen presentzia askoz ere handiagoa da eta Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, gizon eta emakumeen artean berdintasuna dago.

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2012-06-04%20Mujeres%20puestos.pdf>



KOHESIO-POLITIKA

> 2007-2013 Euskadiko Programa Operatiboaren 2011ko Txostena onartu dute

Euskadiko 2007-2013 FEDER Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea maiatzaren 24an egin zuten Bilbon. Bertan onartu zuten 2011ko exekuzio-txostena.

2007-2013 Euskadiko Programa Operatiboaren 2011ko ekitaldiko urteko exekuzio-txostenak aurrez ikusitako ekimenak gauzatzeko datu nagusiak biltzen ditu (lehenetasunari dagokion ardatzaz gain) kategorien arabera banakatutako finantza-datuekin batera.

Era berean, txostenak Programa Operatiboaren inguruko informazioa biltzen du eta 2011ko ekitaldian abian jarritako neurriak zehazten ditu programa horren kudeaketaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren kalitatea eta eragingarritasuna bermatze aldera.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/informe-anual%202011-POPV-07-13.pdf

> Hirien eta Eskualdeen Europako Astea urrian egingo dute

Urriaren 8tik 10era bitartean egingo dute Bruselan Open Days izenekoan, Hirien eta Eskualdeen Europako Astearen, hamargarren edizioa. Europako eskualde mailako politikari buruzko eztabaida egiteko ekimen nagusietako bat da.

Hogeita hamahiru herrialdetako berrehun eta hogeit eskualde eta hirik baino gehiagok iragarri du Europako Batzordeak eta Eskualdeen Batzordeak antolatutako Hirien eta Eskualdeen Europako Astea parte hartuko duela.

Hamargarren edizio honetan, parte-hartzaileek Europar Batasuneko kohesio-politikaren ikuspegi berria lantzeko aukera izango dute.

Open Daysetarako aurrez ikusitako ekitaldi nagusien artean, egitarau zabala antolatu dute eskualde mailako bazkideek, Europako Batzordeak eta Eskualdeen Batzordeak: mintegiak, tailerrak eta eztabaidak (100 baino gehiago).

Informazio gehiago:

<http://www.opendays.europa.eu>



> Emaitzetarako joera. Kohesio-politikaren doiketa (Panorama aldizkaria. 2012ko udaberria)

Kohesio-politikaren etorkizunerako Europako Batzardeak egindako proposamenak emaitzetan gehiago oinarritu dira (iraganean baino askoz ere gehiago). Gai hori lantzen du Panorama aldizkariaren azken aleak (2012ko udaberria). Gainera, Europako Parlamentuko Eskualde mailako Garapen Batzardeko arduradun nagusiei egindako elkarrizketak biltzen ditu.

Bestalde, aldizkariak kohesio-politika berriaren soiltze-helburuetarako gida zabala eta abian jartzeko aholkuak biltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag41/mag41_es.pdf



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Estatuko laguntzak modernizatzeko Europako estrategia

Europa 2020 Estrategiaren garapenerako testuinguruaren baitan, Europako Batzordeak Komunikazio berria argitaratu du. Bertan, Europar Batasunaren baitan estatu mailako laguntzak modernizatzeko bete beharreko strategiaren helburu nagusiak azaltzen dira zehaztuta.

Batzordearen ustez, estatu mailako laguntzak oinarrizko bultzada-baliabideak dira 2020ko Europako Estrategian zehaztutako politikak garatu ahal izateko. Estrategia horren helburua Europa ekonomia adimendun, iraunkor eta txertatzaile bihurtzea da. Estatuko laguntzen modernizazio-prozesuak estatu mailako laguntzen kontrolaren arkitektura argiagoa eta koherenteagoa ekarri beharko luke.

Estatu mailako laguntzak modernizatzeko Batzordeak ezarri dituen helburuak dira hauek: a) Indartuta dagoen eta dinamikoa eta lehiakorra den barneko merkatuan hazkundeari bultzada ematea; b) kontrolak pilotzea barneko merkatuan eragin handiena duten gaien inguruan; eta arrazionalizatutako arauak aurkeztea eta erabakiak bizkorrago hartzea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/competition/state_aid/modernisation/sam_communication_es.pdf



> *EURES zure lehen lana*, gazteei herrialdetik kanpo lana aurkitzen laguntzeko Europako ekimen berria

Europako Batzordeak proiektu pilotu berria jarri du abian. Haren helburua Europako gazteen laneko mugaz bestaldeko mugigarritasuna hobetzea izango da.

EURES zure lehen lana ekimenaren bidez, Batzordeak hemezortzi eta hogeita hamar urte arteko gazteei laguntza emateko zerbitzua eskainiko die Europar Batasuneko beste herrialderen batean lana bilatzeko prozesu osoan.

Programa honen bidez gazteak kontratatuko dituzten ETEek, gainera, finantza-laguntza eskatu ahal izango dute kontratatu berriak diren langileen prestakuntzako kostuaren zati bat eta atzerrian instalatzeko sortutako gastuak estaltzeko.

Hasierako fase honetan, aukeratutako enplegu-zerbitzuak lau izan dira: Alemania, Espainia, Danimarka eta Italia.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/12/492&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Zerga mailako joerak Europar Batasunean

Europar Batasuneko herrialde ugarietako zerga arloko egituraren, mailaren eta joeren inguruko ikuspegi osoa eskaintzen duen urteko txostena da.

Argitaratutako emaitzen arabera, BEZaren batez besteko tasak nabarmen igo dira 2008tik. 2012. urtean, BEZaren tasa normalak aldatu egiten dira herrialde bakoitzaren arabera: % 15,0koak Luxenburgon eta % 17,0koak Zipren; % 27,0koak Hungarian, eta % 25,0koak Danimarkan eta Suedian txikienak eta handienak aipatzearren.

Errentaren eta sozietateen gaineko zergak ere handitu egin dira aldi honetan. Errentaren gaineko zergaren kasuan, nabarmendu beharrekoak dira hauek: Suedia (% 56,6), Danimarka (% 55,4), Belgika (% 53,7), Herbehereak eta Espainia (bietan % 52), Austria eta Erresuma Batua (bietan % 50,0). Baxuenak herrialde hauetakoak dira: Bulgaria (% 10,0), Txekiar Errepublikak eta Lituania (bietan % 15,0), Errumania (% 16,0) eta Eslovakia (% 19,0).

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, tasa altuenak hauek dira: Frantzia (% 36,1), Malta (% 35,0) eta Belgika (% 34,0). Txikienak, aldiz, Bulgaria eta Ziprekoak (bietan % 10,0) eta Irlandakoa (% 12,5) dira.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-DU-12-001/EN/KS-DU-12-001-EN.PDF



> Garapenerako lankidetzak deszentralizatuak: tokiko eta eskualde mailako erakundeen arteko lankidetzak

Eskualde mailako Batzordearen eta Europako Batzordearen arteko ekimena da. Horren helburua Europar Batasuneko tokiko eta eskualde mailako erakundeen, eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko trukeak eta harremanak erraztea eta hobetzea da.

Europako finantzaketa-aukerei eta lankidetzak arloko hirietako eta eskualdeetako proiektuei buruzko informazioa eskaintzen du.

Atariak lau atal nagusi hauek ditu: EBko lankidetzak deszentralizatuaren joera nagusiak biltzen dituzten mapa interaktiboen atlasak, bazkide bila ari diren eta lankidetzak-lan berriak abian jarri nahi dituzten tokiko eta eskualde mailako erakundeen arteko harremanak erraztera zuzendutako proiektuen poltsak, lankidetzak deszentralizatuari eta garapenerako lankidetzari buruzko dokumentuak partekatzea ahalbidetzen duen liburutegia, eta informazioa, esperientziak eta ezagutzak partekatzeko interesdunen artean topaketak erraztea xede duen foroa.

Informazio gehiago:

<http://lra4dev.cor.europa.eu/portal/fr/>

> Eurobarometroa: Gutxi gorabehera, europarren erdia austeritatearen eta hazkundeari laguntza ematearen arteko orekaren alde dago

Maiatzean argitaratu zuten azken Eurobarometroaren arabera, europarren % 47k uste du kide diren estatuek gastu publikoa murriztu beharko luketela eta ekonomia bultzatuko duten neurrietan inbertsioa egin beharra dagoela krisitik atera ahal izateko. Inkestari erantzun zioten % 55ek esandakoaren arabera, modu koordinatuan hartutako neurriekin babes maila handiagoa sentituko lukete bizi dugun krisiaren aurrean.

Inkestari erantzun zioten ia guztiek uste dute zailtasun-egoeran dauden estatuei emandako laguntzak arau komunak errespetatzearen mende egon beharko lukeela.

Informazio gehiago:

http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2012/crise_V/eb_77_2_crisis_and_economic_governance_V_en.pdf